


# ITZAL TITERE LABORATEGIA



***Zurrunka Teatro***

2013 urtean hasi nintzen itzala eta argiarekin lanean. Ordutik eta gaur arte lan ezberdinak sortu ditut itzal titereak eta itzalek orokorrean eskaintzen dituzten aukerak oinarritzat harturik.

Azkeneko urteetan Lekeitioko **Arropaineko Arraguan** ikastolari zuzendutako **Espazioa eta Gauzak** formakuntza ekimenean parte hartzen dut **Argia eta Itzalak** programaren arduradun gisa.



**Eñaut Gorbea**


**Zurrunka Teatro** antzerki taldearen sortzailea. Antzerki estilo ezberdinak jorratu ditut; maskarak, clowna, antzerki fisikoa, ahozkotasuna eta umorezko antzerki absurdoa. Antzezle, zuzendari eta gidoilari gisa Zurrunka Teatrot ekoiztutako antzezlanetan parte hartu dut, hala nola; “Karakolaren gaua”, “Iraungorriko Marimiri”, “Erraldoi bihotzgabea”, “Kalekolore”, “Kirikiñolandiako Titiriteroak”, “AC-NUN, Un ciprés en un desierto”, “Aquí estás mejor”, “Aioko” (Gazte Srtzaileak 2019) eta “Ruta 1492” (Sorkuntzan Gasteizko Printzipal Antzokiaren OFF LOKAL bekarekin).

Honez gain talde ezberdinekin kolaborazioak egiten ditut;

YindeYan Teatro: “Vagamundi”.

Kolectivo Monstrenko: “Ardorien”, “Soy una pérdida de tiempo en constante movimiento”, “Maitasunezko bi istorio eta marko teoriko bakarra” eta “Calma Chicha” (Enredados 2018).

Lekim animaciones: Enperadorearen jantzia.



# Itzalak argia behar du, eta argiak itzala

Agian munduko antzerki mota zaharrena dugu “Itzal antzerkia”. Litekeena da kobazuloetan suaren argiak sortzen zituen itzalekin hasiko zirela jolasean lehenengo gizakiak. Garai batean mundu osoan zabaldua egon den teknika dugu, eta bereziki, Txina, Indonesia, India, Turkia eta Greziako lurraldeetan mantendu den antzerki tradizionala. Aspaldian mitologia eta jainkoen bizimodua zabaltzeko modu bat izan da, aldiz, beste garai batzuetan, debekatuak egon dira Itzal titeren antzerki herrikoiak.

Gaur egun, itzalek geroz eta harrera handiagoa dute antzerki eta ikuskizunen munduan. Eta jadanik, haurren heziketa prozesuan berezko balioa ematen hasi zaio.

Aurkezten dizuegun ekimen berri hau hurrei zuzenduta dago. Haurren irudimen, jolasa eta sormena lantzeaz gain, bolumenak, geometria eta espazioaren kontzientzia lantzeko aukera ezin hobea da.



Laborategi didaktiko eta dibertigarri hauetan haurrek, haien kabuz, material erraz eta erabilgarriez euren elementuak sortuko dituzte, ondoren, oihalaren atzean inprobisatu eta esperimentatzeko aukera izanik.

# Tailerrak

Tailerrak egun kantitatea eta espazioaren arabera antolatzen ditugu. Beraz, aukera ezberdinetarako moduloak daude. **1etik 7 eguneko saioetara luzatzeko aukera.**

## Egun bakarreko tallerra. Iniziazioa:

-Itzal titereen sortzea eta esperimendazioa.

## Bi egunetako tallerra:

-Itzal titereak eta gorputzarekin itzalak.

## Aukera gehigarriak:

-Hondarrarekin proiektzioa.

-Animazioa retroproiektorean.

-Diapositiba sorkuntza.

-Estruktura handiak.

-Itzala barbotinaz. Mural bizia.

-Mikroantzerkia Lambe-Lambean.

-Argi luminiszenteez itzal jolasa.

\* informazio zehatza nahi izatekotan eskuragarri dugu





# Harremana

695 714 699

[zurrunkateatro@gmail.com](mailto:zurrunkateatro@gmail.com)

[www.zurrunkateatro.com](http://www.zurrunkateatro.com)

\* Argazkien jatorria: Lekeitioko Arropaineko Arraguan egindako Itzala eta Argia heziketa programa.